



Jaione Jauregi erbestearatura dagoen errefuxiatuaren estradizio eta espetxeratze agindua

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. ::
22/11/2020

Beste behin ere, euskal errefuxiatu politikoen aurka egin du Espainiako Estatuak estradizio eta espetxeratze aginduekin.

Orain egun batzuk, [pakea eta elkarbizitzaren](#) inguruko hausnarketa egin genuen. Argi dago Espainiako sistema errepresioa ez dela eten eta ez dela etengo.

Gure aldetik, deportatu, errefuxiatu eta preso politiko guztientzako amnistia osoa aldarrikatzen dugu berriz ere, amnistia hau, errepresaliatu politiko guztien askatasunaz gain, beraiek borrokara bultzatu zituzten arrazoien gainditzeaz ulertuta. Beraz, amnistia osoa aldarrikatzen dugu errepresaliatu politikorik gabeko Euskal Herri independente eta sozialista lortzeko neurri moduan.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua - 2020-11-21

<https://eh.lahaine.org/jaione-jauregi-erbestearatura-dagoen-errefuxiatuaren>